

## BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure enpresaren eta bezeroen arteko harremana pertsonala izango da. Denda fisiko bat izango dugu eta zuzenean gurekin kontaktuan egoteko aukera eskainiko diegu. Telefonoz ere gurekin kontaktuan egoteko aukera izango dute eta gure egitasmoari eta produktuei buruz informatzeko aukera eskainiko diegu. Zalantzak argitu ahal izango dituzte. Bestalde, gure webgunearen bitartez ere kontaktuan egongo gara. Bertan gure produktuak erakusgai izango dituzte.

Webgunean, atal bat egongo da non bezeroek dituzten zalantzak idatzi ditzaketen eta guk haiei erantzuteko aukera izango duten. Gure produktuak ere "kritika" ditzakete eta haien iritzia pertsonala idatzi. Kontuan izango ditugu eta haien gustu eta beharretara egokitzen saiatuko gara. Horrez gain, bazkide egiteko aukera izango dute datu pertsonalak emanaz eta hainbat abantaila izango dituzte. Alde batetik, hileroko katalogo bat bidaliko diegu e-mailera eta gure azken berri eta produktuez informatuko diegu. Deskontuak ere jasoko dituzte eta zenbait oparitxo bidaliko dizkiegu hiruhilero. Gainera, gure enpresak, gure aurrerapenez informatuko du: ingurumenean zer eragin onuragarri sortzen dituen eta zer kantitatetan murriztu den plastiko kantitate soberakina. Gure bezeroen parte-hartzea nahitaezkoa da emaitzak lortzeko helburua badugu.

Azken finean, bezeroak, enpresaren parte izango dira eta haien parte-hartzea beharrezkoa da gure helburua lortzeko. Funtsezko elementu dira eta haiek kontuan edukitzea beharrezkoa da.